

# Omenaldiak



# Junes Casenaveri omenaldia

Uztailaren 11n, *Sü Azia* elkarteak antolatuta, Junes Casenave idazle eta ohorezko euskaltzaina omendua izan zen Altzain (Zuberoa). Casenavek Altzaiako erretore kargua utziko du, eta Donapaleura erretiratuko da laster. Omenaldian meza, kantuak, dantzak eta olerkiak uztartu ziren, eta Casenavek bere bizitza guztian euskara eta euskal kulturaren alde egindako lana goraiatu zuten.

Besteak beste, hauek parte hartu zuten: Johane Erbin, Jean-Louis Aguer, Pierra Harguindeguy, Jean Bordachar, Jean-Louis Aranburu, Larraineko dantzari gazteek, Niko Etxart, Anixet Errecaret, Allande Socarros eta Jean-Louis Davant eta Txomin Peillen euskaltzain osoek. *Sü Azia* elkarteko kideek adierazi bezala, «Aita Junesek merexi dü saldo handian bil gitean, haren üngürüan, parropianten eta eüskalgintzaren alde egin düan lan handiaz eskerrak emaiteko».

## Pedro Yrizar zenari omenaldia

Irailaren 29an, Azkoitian, Pedro Yrizar ohorezko euskaltzain eta euskarologo zena omendu zuten Euskaltzaindiak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak (EAE), Udalarekin batera. Azkoitiko Euskal Jainen mendeurrena ospatzen ari dira irailean eta urrian zehar, eta «Azkoitian Euskal Jainen Mendeurrena (1910-2010)» izeneko egitaraua prestatu dute. Pedro Yrizarren jaiotzaren mendeurrena ere aurten bete da eta, esan bezala, asteazkenean omendu zuten. Ekitaldia Intsausti Jauregian egin zen eta bertan hauek izan ziren: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jose Mari Urkia EAeko Gipuzkoako presidentea, Asier Aranbarri Azkoitiko alkatea eta Iñigo Yrizar omendua-ren semea.

Ekitaldiaren amaieran, erakundeen izenean, Asier Aranbarrik «Lan Onari» domina eman zion Yrizarren beste semeetako bati, Pedrori. Ondoren, Adolfo Arejita Euskaltzaindiko Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren zuzendari akademikoak eta Amaia Jauregizar egitasmo horren teknikariak «Pedro Yrizar eta Euskararen Herri Hizkeren Atlas» hitzaldia eman zuten.

Pedro Yrizarrek euskalki guztietako aditz laguntzailearen morfologia aztertu zuen, eta lan horren emaitza Euskaltzaindiak argitaratutako *Morfología del verbo auxiliar vasco* hamabost liburuz osatutako lanean jaso da.

## Pedro Yrizar, aitta

YRIZAR, Iñigo

Lehenik eta behin barkamena eskatu nahi nuke, nire euskerak hobetu behar du eta. Dena den, idazkia irakurtzen saiatuko naiz.

Adiskide maiteok:

Joan den abuztuaren hamaikan eta Azkoitiko Udalak antolatuak, senideek, lagunak eta baita alkateak ere, Aingeru-Guarda baselizan elkaturik non aita lurperatuta dagoen, lore-eskaintza egin genion haren jaiotzaren mendeurrena zela eta. Bihotz-bihotzeko ekitaldi honek Pedro de Yrizar-ek Azkoitiarekin, bere jaioterriarekin, izandako lotura adierazi nahi zuen. Pello lagunak *Agur jaunak* txistuz jotzerakoan kutsu hunkigarria eman zion ekitaldiari.

Pedro de Yrizar-ek jaioterriarekiko zein euskararekiko zeukan amodio erakutsi nahian euskal gaiak ikertzeari ekin zion, garrantzi handiko lanak jorratuz, ordura arte aztertu gabe. Eta horretaz gain, gehienetan ez ziren pertsona bakar batentzako lanak, talde handi batentzako baizik. Lan esker-gak, hain zuzen.

Hona hemen horietako batzuk:

- Herriz-herri euskaldun kopurua zenbatuz hasi zen joan den mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan, inoiz egin gabeko ikerketa gainera.
- Geroago, laurogeita hamarreko hamarkadetan, herriz-herri eta auzoz-auzoz euskal aditz laguntzailea biltzeari ekin zion, zehatz-mehatz eus-

kalki guztietan sailkapena osatu arte. Hori ez zen, ez, lan makala. Baina kontu honi buruz ederki argituko digute gure artean dauden entzutetsu adituek; beraz, beren parte-hartzea ezkertu nahi diet omenaldian honetan.

Baina, aipatutako erronkak bukatu bezain laster, beste erronka bati aurre egin zion. Kasu honetan Azkoitia zen muina. Ikerketa honen alde nagusia Azkoitiko leinuak eta zuhaitz-genealogiakoak biltzean zetzan. Eta aurrera eramateko beste askotan bezala laguntzaile talde sutsu batez baliatu zen. Aitak sentitu zuen azken ekarpena bere jaioterrira egin behar zuela eta lan honetan jardun zen azken arnasa hartu arte.

Esan beharra dago aparteko laguntzaileak izan zituela aitak aipatutako lanak egiteko. Horretarako, funtsezkoa zen gogoia eta kemena haien artean zabaltzea. Horretan datza agian Pedro de Yrizar-en arrakasta, hau da, Euskal Herriko lagun baliagarrienak haren ondoan elkarlanean aritzea.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartasuna eta Euskaltzaindiko kidea izateaz harro zen aita eta horregatik erakunde hauetako buruzagiei Jose Maria Urrutia eta Andres Urrutia-ri eta baita laguna den Asier Aranbarri Azkoitiko alkateari eta Kultura Arloko Foru Diputatua den Maria Jesus Aranbururi ere, bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet familiaren izenean.

Bukatzeko, omenaldi honek garbi adierazten du aitak egindako lana ez dela ahaztu egin. Izan ere, ziur nago hurrengo belaunaldiek erabiliko dutela euskal kultura eta hizkuntzaren alde lan egiteko, aitaren ametsa betetzen.

Eskerrik asko guztioi.

\* \* \*

Adiskide maiteok:

El pasado 11 de agosto, convocados por el Ayuntamiento de Azkoitia nos reunimos en la ermita del Ángel de la Guarda un grupo de familiares y amigos, presididos por el Alcalde, para hacer una ofrenda floral en el lugar donde está enterrado nuestro padre, el mismo día en el que se cumplía el centenario de su nacimiento. Fue un acto íntimo y muy sentido que consagraba la definitiva y permanente vinculación de Pedro de Yrizar con su

pueblo de Azkoitia. El «Agur jaunak» interpretado al txistu por el amigo Pello subrayó la sobria solemnidad del acto.

Pedro de Yrizar quiso concretar el amor a su pueblo y a su lengua emprendiendo trabajos que cubrieran aspectos importantes y desatendidos, aunque fueran de una dimensión excesiva para una sola persona. Trabajos propios de un gigante.

Así se propuso contar, pueblo por pueblo, los euskaldunes, investigación que no se había hecho hasta entonces. Eran los años 70 del siglo pasado.

Después se empeñó en documentar, pueblo a pueblo y barrio a barrio, el verbo auxiliar para obtener una información completa y exhaustiva de los Dialectos y Variedades del Euskara. Eran los 80-90. De esta cuestión nos van a hablar después ilustres expertos a los que agradezco ahora su participación en este homenaje

Concluidos estos dos gigantescos empeños, concibió una ambiciosa obra que recogiera los aspectos más variados de su querida Azkoitia. Parte principal sería confeccionar la base de datos genealógica más completa que se pudiera de familias de Azkoitia. Para ello contaba con un entusiasmo y un amor desbordado por su pueblo y un gran número de amigos a los que pedir ayuda. Sentía que su último servicio a la cultura vasca tenía que hacerlo a su pueblo natal. Este fue su trabajo de los 90 hasta el día de su fallecimiento.

Como en las otras ocasiones supo rodearse de los mejores colaboradores, aglutinando un enorme número de personas a los que transmitió su entusiasmo y ejemplo. Quizás fuera ésta su principal virtud, promover y aunar esfuerzos, que él podía conseguir porque, a un gran talento, unía una pasión contagiosa, capaz de movilizar a lo mejor del País.

Por ello estaba orgulloso de pertenecer a la Real Sociedad de los Amigos del País y a Euskaltzaindia, instituciones a las que, en las personas de sus presidentes, los Amigos José María Urkia y Andrés Urrutia, junto con el Ayuntamiento de Azkoitia y su alcalde, el amigo Asier Arambarri, y la Diputada Foral de Cultura, M<sup>a</sup> Jesús Aranburu, quiero agradecer «biohtz-biohtzez», en nombre de la familia, este homenaje.

Homenaje que culmina la gran ilusión de nuestro padre de que, finalmente, el fruto sus esfuerzos no cayera en el olvido, que le sobreviviera, fuera útil y quedara a disposición de cuantos se interesen en el futuro por nuestra lengua y cultura.

Muchas gracias a todos.



## Xabier Kintana: «Gabriel Aresti begi-gogoetan»

Urriaren 8an, *Ahotsa, hitzak, hizkuntzak olerki-antologiaren* aurkezpen ekitaldiarekin bat eginez, Euskaltzaindiak Gabriel Aresti zena (Bilbo, 1933-1975) omendu zuen. Aresti poeta handia euskaltzain urgazle ere izan zen, bai eta euskara batuaren bultzatzaile handienetarikoa ere.

Omenaldi honetan, Xabier Kintanak hartu zuen hitza. Ondoren, Kintanak berak, Euskaltzainburuak eta Ameli Esteban Gabriel Aresti zenaren emazteak agerian utzi zuten Bilboko poetaren koadroa, Euskaltzaindiaren batzar aretoaren sarreran dagoena. Arestiren erretratua Jorge García Alegría egin du.

Andres Urrutiak esan zuenez, «Euskaltzaindia prest dago, irudia ez ezik, bestelako lanak eta ekimenak ere bultzatzeko haren inguruan, uste baitu Arestik eta Bilbok, euskara eta euskalgintzak hori merezi dutela».

## Gabriel Aresti begi-gogoetan

KINTANA URTIAGA, Xabier

Euskaltzaindiko idazkaria

Jaun-andreok, agur:

Gaur Euskal Herriko poeta batzuk gogoratu eta haien lan batzuen berrargitalpena berriro ere jendaurrean aurkeztu dugu, beraien oroitzapena ohortzea helburu. Horien artean, Gabriel Aresti, Bilboko poeta, Euskaltzaindiko kidea. Aukeraz baliatuz, egun berean, bide batez, Euskararen Akademiaren batzar-aretoaren atarian haren erretratua jarri nahi izan dugu, hemendik aurrera, euskaltzainok hona biltzen garen guztietan, hura ikus dezagun, beragaz gogora gaitezen, ongi etorri esale gisa.

Duela urte batzuk idazteko asmoa neukan ipuin-antologia baterako, neure irakasle eta adiskide zintzo batengana jo nuen: Shalan Hares-engana. Orduan ondoko anekdota hau kontatu zidan, berak bere herriko eskolamaisuari Libanon entzuna:

Behin batean Alexandro Handiak, grezieraz *Mégas Aléksandros* (Μέγας Αλέξανδρος), eta arabieraz *Al-Iskandar al-Akbar* (الإسكندر الأكبر) gisa ezagutuak, Egipto konkistatzeko asmoz zebilela, Ekialde Hurbilera heldu eta, Libanon, bertako mendixka baten gainera igotzea erabaki zuen, morroi batekin batera. Handixek piramideen herriraino bere soldaduek ibili beharko zuten bidea ikusi gura zuen, antza. Hara zihoala, bide ondoan agure bat ikusi zuen, pala batekin zulo bat egiten, eta Alexandrok ea zertan ziharduen galdetu zion. Zaharrak, gerlari handia errespetuz agurtu ondoren, zulo hartan palmondo bat landatu nahi zuela erantzun omen zion.

Orduan, mazedoniarrek, harriduraz, honetara esan omen zion: –Baina gizona, palmondoak, handia hazi eta fruitua ematen hasteko, gutxienez hogeitau urte inguru behar izaten ditu; eta zu jada zaharra zara, hori ikusi ahal izateko—. Agureak, orde, honela ihardetsi zion: «Gure aurrekoek lehenago landatu zutelako, ari gara jaten gu orain. Guk landatzen dugulako, jango dute beste batzuek gero».

Erantzuna Alexandroren gustukoa izan omen zen, eta berekin zekarren morroiari agindu zion zahar hari urrezko txanpon bat emateko. Orduan agureak, eskerrak agertuz, irribarretsu, hau esan omen zion grekoen erregeari: «Ikusten al duzu, jauna? Landatu berria da, baina palmondo honek jada bere lehen fruitua eman du». Alexandrok zaharrari beste txanpon bat eman eta handik alde egin zuen barrezka, agure maltzurak beragandik diru gehiago atera baino lehen.

Duela lau hilabete, pasadizo honen berri jakin gabe, Patxi Uribarren euskaltzainak Aramaion, bere jaioterrian, sarrera-hitzaldi ederra eskaini zion, hain zuzen ere, izenburu honekin: «*Izan zirelako gara eta garelako izango dira*». Bata Ekialde Hurbil urrunean; bestea Euskal Herrian bertan; hura orain bi mila eta hirurehun urte gertatua omen. Aurtengo maiatzekoa berau. Baina bietan ideia berbera datza: gizakien eta belaunaldiz belaunaldiko segida, elkarren arteko harremanen giza kate luze eta etengabea, bere mailetan jendearen sentimendu, nahi eta oroitzapenak bilbaturik daramatzana.

Oraintsu aurkeztu dugun antologian bildurik, hogeigarren mendean jaiotako poeta bizi edota berriki zendu batzuen emaitza hautatuak ageri dira: Angela Figuera, Blas de Otero, Javier de Bengoechea, Juan Mari Lekuona, Bitoriano Gandiaga, Gabriel Aresti, Jorge González Aranguren, Blanca Sarasua, Xabier Lete, Bernardo Atxaga... Gehienek, guztiek ez esateagatik, elkar ezagutzen zuten; idazkideak eta lagunak ziren.

Bakoitzak bere nortasun eta idaztankera berezia izan arren, guztiek frankismoaren garai latza ezagutu zuten, eta askatasunik eza pairatu. Halere, zentsuraren hertsikeria beren adore eta irudimenari esker jakin zuten gaintzen, eta beren obretan askatasun- eta eskubide-nahiak, injustiziaren aurreko makurgaitzasuna, sentimendu eta mundu-ikuskerak utzi zizkiguten, hurrengo belaunaldiei eskua eman eta suzi iratxekia pasarazteko.

Horien artean Gabrielelek giza pentsamenduen, sentimenaren eta kezken mugak ireki zizkigun, errealitatea zabaldu eta berau bestelako begiekin ikus-tera lagundu zigun, itxaropenez, eta etorkizunerako bideari pauso trinkoagoekin jarraitzen irakatsi. Izan ere, itxuraz ezinezkoa zirudiena ekinez egin daitekeela bere etsenpluarekin predikatu zigun. Ondorioz, Gabriel Arestiren zidorretik abiatu ginenok gaurko bide zabalagoetara heldu gara. Atzean gelditu dira, lotsagarri, gure herriko hizkuntza jatorra berreskuratzeko interesik ezagatik, eta beren alferkeria estaltzearren, lau haizeetara euskara ikas-tezina zela predikatzen zutenen leloak, gaur egun milaka eta milaka euskaldun berrik gezurtaturik.

Era berean, Unamuno eta Baroja bezalako eniritzi ezkorren gaineratik, ongi frogaturik utzi zigun Gabriel Arestik Lizardiren behialako esperantza hura: euskara orotarako hizkuntza izan daitekeela, euskaldunok hala nahi izanez gero.

Handia da, oso, Arestirekiko gure zorra. Horrexegatik, Gabriel, beti zaituzkegu gogoan.

## 2010eko «Xalbador» Eguna

Urriaren 9an eta 10ean, gozoro egin da aurten ere *Deiadarra* taldeak, Euskaltzaindia eta Urepeleko Herriko Etxearen laguntasunez, antolatzen duen Xalbador Eguna, Fernando Aire «Xalbador» bertsolari haundia zenarekin batera Imanol Sein «Xanpun» (1928-2002) bertsolari lapurtarra goralduz.

Aurtengo festa, urtero bezalaxe, larunbat arratsean hasi zen, herriko pilotalekuan (ezker paretan), Bergarako Idazle Eskolako gazteek antolatu zuten ilunabar literarioa, Xendarineko ahizpen bertsu zahar eta Gasteizko Zabaleta anaaien trikitixaz nahasketa ederra eginez. Ehun eta hogeitabat lagun bildu ziren festa giroan, lagun arteko afari eta festan, eta apenas inor jo zuen logureak, ordu txikiek aurrera egin zuten arte.

Hala ere, igande goizeko 9:30etarako herriko plaza auto eta ibiltariz bete zen, Xalbadorren artzain-etxola eta inguruetara mendi-ibilaldia egiteko prest, nahiz eta eguna negarti eta euritsu agertu zen udazkeneko egunsenti ospelean.

Azpiparragarria da bestalde, herriko apaizak eta Emile Larre euskaltzainak eman zuten mezaren ostean Xalbadorren hilobira egindako bisitaldia. Hantxe bildu ginen herritar eta Xalbador-Xanpunen maitale/miresle asko, Xanpunen alarguna eta seme-alabak, herriko auzapeza, Laka bertsolaria eta abar; eta Lourdes Ijurjok (Aranalde zenaren koinata) egin zuen lore eskaintza bertsolariaren hilobian, urtero bezala. *Aitagure* bat esan, Lakaren hiru bertso entzun, eta *Agur jaunak* kantatuz agurtu genuen hangoa.

Eguerdian, herri kirolak izan ziren plazan, Donazaharre (Nafarroa Beherea) eta Mutrikuko (Gipuzkoa) taldeekin. Sokatira, fardo altxatzea, tron-zalariak, txinga proba, lokotx biltzea eta abar, Joxe Mari Egaña zuzendari zela. Eta jarraian, pilotalekuan, Osintxuko Musikara taldearen dantzaldia ikusteko aukera izan zuen jendeak, taldearen lana gogotik txalotuz. Euskal dantzak eman zituzten, bai, baina ez ordea modu tradizionalan: Benito Lertxundiren zenbait kantu ezagun eta musika bereziz landutako koreografiak eraman zituzten osintxuarrek Urepeleko euskal festara.

13:30ean hasi zen lagun arteko bazkaria, pilotalekuan. Eta tartteetan, Jean-L. Lakak eta Xendarineko ahizpek kantatu zituzten Xalbador eta Xanpunen bertsoak, bazkaldarren gozamenerako. Halaber, Xalbador eta Xanpunen goramenez egindako bideo-argazki bilduma ere gogoz onartu zuten bazkaldarrek.

Uxue Alberdi, Juan Jose Eizmendi Loidisaletxe II eta Sebastian Lizasoren bertso saioak eguneko ospakizunaren ardatzari zegokion maila ongi eman zuen; eta ordubete eta laurdeneko saio batean nekez esan daiteke esan zuten baino askoz gehiago, erritmo bizi-biziko saioa egin baitzuten, izan ere.

Azkenik, bostetan bertso saioa amaitu zenean, berehala erromeria hasi zen, Ander eta Imanol Zabaleta anaiekin, herriko pilotalekuan bertan, kanpoan euria zela-eta.

Eguraldiak ez du asko lagundu aurten. Baina ahogozo ezin hobea utzi du asteburuak Xalbadorzaleen artean. Horrexegatik, eskerrak eman nahi dizkie *Deiadarra* taldeak, behin eta berriz, Euskaltzaindiari, Urepeleko Herriko Etxeari, Bethart familiari eta antolakizunak egiteko laguntasun berezia ematen duten lagun eta komunikabide guztiei.

Hurrengo urtean (2011) Xalbadorren heriotzaren 35. urteurrena izango baita, berriro ere lanean hasteko animatuta gelditu da *Deiadarra* taldea.

## Joan Mari Torrealdaik jaso du «Lauaxeta» Saria

Joan Mari Torrealdai idazle, kazetari, soziologo eta euskaltzain osoak Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko *Lauaxeta* Saria jaso du. Saria Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusiak eman dio, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunaren barruan.

Bizkaiko Foru Aldundiak Torrealdairen ibilbidea azpimarratu nahi izan du. Besteak beste, hauxe dio: «Joan Mari Torrealdai Nabea gai askotako hainbat libururen egilea da, eta sari ugari lortu izan ditu euskara sustatu eta aztertzen edota, besteak beste, Euskadiko historia garaikidea lantzen emandako ibilbide luze eta oparoan».

Sariaren bidez, «publikoki aintzat hartu nahi dira gure hizkuntza eta euskal kultura sustatu, hedatu eta normalizatzeko lanetan egindako ahalegiengatik nabarmendu diren pertsona, talde eta erakundeak».

## Jose Luis Lizundia, euskaltzain osoa saritu dute Abadiñon

Abenduaren 17an, Abadiñoko Kultura Etxean egindako ekitaldian, 2010eko *Abadiño* sarietako bat eman zioten Jose Luis Lizundia euskaltzain eta Euskaltzaindikoko diruzainari. Aurten lehenengo aldiz eman dira sari hauek, eta bost izan dira sarituak: Jose Luis Lizundiarekin batera, Andeka Gorrotxategi tenorra, Javier Elorriaga txirrindularia, Angel Alvarez «El Campurriano» eskultorea eta Abadiño sokatira taldea.

Sariak antolatzen dituen Abadiñoko Udalaren esanetan, guztiak «herri-gazko inplikazio handia erakutsi dute, eta gazteentzako eredugarri diren balioak zabaldu dituzte».